



Janire Alonso - Janire Etxebarria  
Aixerrota BHI, 15-16

---

## Aurkibidea

• Iñaki Frieria .....	2
• Sarrera .....	2
• <i>Zureak egin du</i>	
Kokapena .....	3
Gaia .....	3
Argumentua .....	3
Istoria .....	4
Pertsonaiak .....	6
Egituraketa .....	7
Baliabideak .....	7
• Iritzia .....	8
• Bibliografia .....	9
• Webgrafia .....	9

---

## Iñaki Frieria



Iñaki Frieria Urbistondo Barakaldon (Bizkaia) jaio zen 1962ko irailaren 16an. Euskal Filologia ikasi eta gero itzultzaile eta interprete lanetan aritu da.

Bere lehenengo idazkiak, hizkuntza eta hizkuntza gatazkari buruzkoak izan ziren, baina gaur egun haur eta gazte literatura lantzen du batik bat. Hala ere, baditu ere beste lan batzuk, hauek helduei zuzenduta eta dibulgazio-arlokoak dira.

Argitaratu zuen lehen obra *Izaroko altxorra* izan zen 1996 an ibaizabal argitaletxerako, eta urte batzuetan argitaletxe horretarako beste hainbat gazte liburu publikatu ditu. Gainera azken urteotan susa argitaletxerako beste bi eleberri kaleratu ditu: *Lehorreko paterak* (2001) eta *Zureak egin du* (2010).

Guk, bigarren eleberri hau hautatu dugu, irakurri eta lan bat egiteko. Gai sozialen inguruan idazten du batik bat, eta horren lekuko dugu irakurritako nobela.

---

## Sarrera

*Zureak egin du* Iñaki Frieriak idatzitako thriller moduko eleberria da, 2010ean argitaratua. Nobela hau, idazleak erabiltzen duen ohiko gaia du; hau da, gizartean gertatzen diren gai sozialei buruz hitz egiten du.

Fikzioa izan arren nahiko erreala da, gizartean gehiegi entzuten den arazo bat tratatzen baitu. Eta, gainera, aipatzen dituen lekuak (Maurice Ravel etorbidea, Baiona kalea, Jesus Guridi kalea...) benetan existitzen direnez, errealitatearen ukitu handiagoa ematen dio.

Narrazioari dagokionez, ikus dezakegu idazleak bi planotan banatzen duela kontakizuna. Lehenengoa, protagonistak bere jarduerekin eratzen duen istorioa da eta, bigarrena, protagonistak Sofiaren kasuarekin lortutako adierazpenak agertzen dira.

---

## Zureak egin du

### Kokapena

Nobela honek ez dio garrantzi gehiegi ematen kokapena bezalako xehetasunak azaltzeari, baizik eta gertatzen diren ekintza guztiak ondo kontatzen zentratzen du atentzioa.

Hala ere, pertsonaiek daramaten bizitza ikusita, argi dago aktualitatean gertatzen dela, eta ziur aski idazleak liburua idatzitako edo argitaratutako momentuan kokatuko zuela, 2009 aldera, hain zuzen ere.

Bitxia iruditu arren, obran ez da istorioaren kokapen geografiko konkretua aipatzen. Hala ere, esan daiteke Euskal Herrian gertatzen dela. Aipatzen den bakarra da hiri batean kokatuta dagoela, eta Euskal Herriko hiria bada, argi dago Bilbo dela. Dedukzio hau hiriaren leku konkretu batzuen deskribapenen ondorioz atera dugu, hala nola, metroa aipatzen duelako. Agertzen den beste leku bereizgarri bat Unibertsitatea da.

### Gaia

Emakumeen aurkako indarkeriaren gaia jorratzen du. Protagonistak Sofiak bere senarragatik jasandako bortxa ikertzen du, gero lan egiten duen egunkarian artikulua bat idazteko.

### Argumentua

Kazetari bati (protagonistari) bere nagusiak emakumeen aurkako tratu txarrei buruzko erreportaje sakon bat egiteko agindu ostean, honek gutun anonimo bat jasoko du erredakzioan. Gutun horretan, CD bat eta ondorengo oharra "Zergatik biktimaren bila ibili, erasotzailea zigortu beharrean?" zegoen. Hori irakurrita, eta CDan dagoena ikusteko gogoz, jarri eta gizon batek emakume bat jipoitzen ikusi zuen. Tranpa horretan erorita, Sofiaren kasua ikertzen hasiko da, gutxinaka-gutxinaka inplikaturik dauden biktimak eta indarkeriaren ondorioak ezagutzuz.

Kasua ikertzen ari den bitartean eta amaierara gerturatzen hasten denean, mehatxuak eta beste zenbait arazo pairatzen ditu Sofiaren erasotzailearen eskutik. Baina hori kontuan hartu gabe, ikerketa eta artikuluekin aurrera jarraitzea erabakitzen du. Azkenean, behar zituzten probak lortzean, Sofia bueltatu eta bere erasotzailearen aurkako epaiketa gertatzen da.

## Istorioa

Obrako protagonista kazetari gazte bat da. Hau bere neskalgunarekin bizi da eta azken boladan lanean emakumeen kontrako tratu txarrei buruzko lan bat egin behar du. Bere neskalgunak ospitalean lan egiten duenez, bertara tratu txarren biktima dirudien emakume bat heldzean mutil-lagunari kontatzea pentsatzen du. Honek serioki hartzen du kasu honen ikerketa egitea, lanerako lagungarria izango zaiolakoan.

Gaian ikertzeko alferrikako saiakuntza batzuen ondoren, bere lanera gutun bat heldzen zaio barruan CD bat eta mezu bat daramana. CD horretan, gizon bat emakume bat jipotzen agertzen da bideo batean, mezuan, aldiz, zera jartzen du: "Zergatik biktimaren bila ibili, erasotzailea zigortu beharrean?". Bideoan agertzen den gizonaren kotxea ikusten denez, gizonarekin kontaktatu dezakela uste du. Horrela, azken bost urteetan hirian saldutako kotxe horien jabeen izenak lortzen ditu eta lehenengoaren lanera joaten da. Hau notarioa da, eta horrelako kotxerik ez daukala esaten dio. Hala ere, notarioaren idazkariak kazetaria besotik hartu eta Sofiarengatik joan den galdetzen dio. Kazetariak notariotza horren susmo txarra hartzen du eta idazkariarekin gelditzen da, baina hau ez da agertzen, beraz ikerketarekin bere kabuz jarraituko du.

Egun batzuk geroago, bere lanera barnean zinemarako sarrera bat duen gutun-azal bat heldzen zaio. Zinemara joan eta bertan gizon batek poltsa bat ematen dio. Etxera heldzean, begiratu eta emakume baten historial klinikoa dela ikusten du. Horregatik, bere neskalgunari ospitalera kolpeen markekin joaten den neskaren historiala eskatzen dio eta gizonak emandakoarekin bat egiten duela ikusten du. Horregatik, neskalgunari Sofiaren helbideetan norekin bizi den jartzen duen galdetzen dio. Honek helbideen informazioa lortzen dio eta protagonistak horietako askotan gizon batekin bizi dela ikusten du. Notarioaren izena da jartzen duena eta notariotzara joaten da. Bertan, idazkariarekin ikusten da eta honek Sofia notarioaren semearekin ezkonduela zegoela kontatzen dio, eta honek aitaren izen bera du. Ondoren, bideoan agertzen den gizona notarioaren semea dela esaten dio, baina emakumea Sofia ez dela. Kazetaria harrিতuta geratzen da, eta idazkariak bera, beste batzuen artean, emakumeen tratu txarren aurkako elkarte batean dagoela esaten dio, eta hau guztia bere laguntza behar dutelako egin dutela. Kazetaria objektu baten moduan sentitzen den arren, ikerketan aurrera segitu nahi du.

Horren ondoren, hondartza batean bideoan agertzen den emakumearekin gelditzen da. Sofiaren ahizpa da. Honek berak jasotako Sofiaren senarraren agresioa nolako izan zen kontatu, eta bere laguntza behar dutela esaten dio. Agurtu baino lehen, kontuz ibiltzeko eskatzen dio eta poltsa bat ematen dio. Poltsan karpeta batzuk daude eta horietan abokatu baten informe batzuk. Abokatuak informean zioenez, Sofia

psikologoaren bidali zuen. Kazetariak psikologo horrekin kontaktatu nahi du, eta bere izena ez dakien arren, Sofiaren etxetik hurbil dagoen bat izan daitekeela uste du. Harengana joaten da egun batean, Sofiaren mutil-lagun aktuala dela esanez. Ez du gehiegi lortzen, baina Sofiaren izena esatean psikologoaren harridura aurpegia ikusten du.

Hurrengo egunean, lanera joateko prest dagoenean, bi gizonek bere etxeko portalean inguratzen dute protagonista. Sofia non dagoen galdetzen diote eta kazetariak ez duela ezagutzen erantzutean, jipoi bat ematen diote. Baina kazetariaren neskalguna oihuka ateratzen da eta bi gizonek ospa egiten dute. Arratsalde horretan bertan, kazetaria psikologoaren bueltatzen da, berak palizarekin zer ikusia duela uste duelako. Psikologoak dena ukatzen du eta kazetaria bere kontsultatik ateratzen da. Irteeran, aurreko kontsultaren abokatuaren izena ikusten du. Hortaz, gauza bat bururatzen zaio. Unibertsitatera joango da, 60ko hamarkadako zuzenbideko graduatuak ikusteko. Han, abokatu eta notarioa agertzen direla ikusten du. Psikologoari esan eta psikologoak abokatuaren senarra dela eta traizionatuta sentitzen dela aitortzen dio. Gero, Sofiaren informazioa ematea onartzen du.

Kazetaria etxera heltzean neskalguna ez dagoela ikusten du. Bere bila joaten da eta Sofiaren senarrarekin topatu dela ikusten du. Honek neskalgunaren telefonoa dauka eta mehatxuak egiten hasten da. Horren ondorioz, kazetariak ikerketa bukatuko duela esaten du. Sofiaren ahizparekin berriro geratzen da, baina neskalgunak ikerketarekin jarraitu behar duela esaten dio lehen aldiz. Hala ere, bera bere gurasoen etxera joango da babesa hartzeko eta bitartean protagonistak artikulua idazteko. Joaten den egunean zehar, protagonistak neskalgunaren amari deitzen dio eta honek alaba etxera ez dela heldu esaten dio. Orduan, kazetaria neskalgunaz kezkatzen hasi eta bere bila joaten da; bidea, istripu bat izan duela jabetzen da, norbaitek errepidetik bota duelako. Zorionez, larria izan ez denez laster joaten da ospitaletik etxera.

Behin etxean, kazetariak erreportaia idazten du eta bere nagusiari erakusten dio. Honek lana ondo dagoela esaten dio, baina izenak ezabatu egin behar dituela. Kazetariak ez dio kasurik egiten eta lanetik botatzen dute. Hala ere, bere lanari esker, ikerketa bat hasten da.

Azkenean, auzia gertatzen da. Bertan Sofia agertzen da, bere senarra oraindik maite duela esanez, baina min egin ziola aitortzen du eta hortik aurrera soilik bere buruarengan pentsatuko duela.

## Pertsonaiak

Obra honetan pertsonaia asko agertu arren, gehienak ez dute izenik, bakarrik Sofiaren izena agertzen da. Esangura duten pertsonaiak hauek dira:

### Protagonista

Kazetaria da, eta lan egiten duen egunkarian emakumeek jasandako indarkeriari buruzko artikuluak idazten ditu. Istorioak aurrera egin ahala ikusten da protagonista garatu egiten dela, arazoei eta beldurrari aurre eginez eskuartean duen misterioaren erantzunak aurkitu nahi ditu.

### Neskalaguna

Protagonistaren neskalaguna da, eta berak jartzen dizkio eskuartean hasierako datuak mutilari eta horregatik hasten da argumentu guztia. Sofia ospitalean erizain lanean zegoen egun batean ezagutu zuen eta Sofiaren familiarekin berari laguntzea pentsatzen du. Oso garrantzitsua izango da istorioan, protagonistari lagundu eta honek amore ematea ekidingo baitu.

### Sofia

Eleberri osoan aipamenak egiten badira ere, bakarrik azken kapituluan agertzen da. Bera da tratu txarrak jasan dituen neska.

### Sofiaren ahizpa

Hasieratik ez dago oso ados koinatuak esaten dituen gauzeekin eta jokamoldeekin, eta denbora guztian Sofiari esnatzeko esaten dio lagundu nahian, baina kasu egiten ez dionez, bere koinatua ahizparengandik aldentzen lagundu eta protagonistaren neskalagunarekin plan bat pentsatzen dute Sofiaren senarra kartzelara sartzeko asmoarekin.

### Sofiaren aita

Hasieratik ez du gustuko Sofiaren senarra, baina bere alaba hain pozik ikusita bere pentsamenduak alde batera uzten ditu.

### Idazkaria

Sofiaren laguna, berarekin lan egiten hastean ezagutu eta lagun egin ziren. Bera da lehenengoa Sofiaren sufrimendua ikusten, eta horregatik, protagonistari lagunduko dio bere laguna senarrarengandik salbatu eta justizia aurrera eraman dezan.

## Psikologoa

Bilera desberdinetan, Sofiarekin eta senarrarekin arituko da beraien arazoa konpondu nahian, baina garrantzi handiena hartzen duen puntua, protagonista laguntzen duenean da, hau da, Sofiaren kasuaz hitz egiten duenean.

## Egituraketa

Obra honen kanpo egitura aztertuz, kapitulu eta azpi-kapituluetan banaturik dagoela ikus dezakegu. Lau kapitulu izan arren, horietan istorioaz aparte Sofiaren kasuak eragindako adierazpenak agertzen dira.

Beste alde batetik, barne egitura aztertuz gero, esan beharko genuke, hasierako orriek amaieran kokatuko genituzkeen arren, liburua narrazio lineal batean kontatzen dela, eta kasu batzuetan, iraganari egiten dio erreferentzia, pertsona desberdinen adierazpenez baliatuz. Lehenengo orrian istorioa gertatu ondoren koka dezakegu; epaia baino egun bat lehenago; hau da, Sofia agertu ondoren, auzitegian epaia emateko zain daudenean. Momentu horretan, istorioan zehazki zer gertatu den jakin gabe gutxi gora behera nola amaituko duen jakin daiteke, baina korapiloan gertatuko denaren aipamenik egin gabe. Horrela istorioaren muina zein den irakurri ahala jakitea lortuz, hau da, hori irakurrita bakarrik, zer gertatuko den jakin gabe geratuz, eta horrela irakurtzeko grina sortuz.

## Baliabideak

Idazleak zenbait baliabide erabiltzen ditu irakurketa erakargarriagoa egiteko.

Hala nola, kontakizunean aurrerago gertatuko denaren klabeak sartzen ditu esaldi laburretan, irakurlearen interesa bizi-bizi egon dadin.

*Zelan ez ginen ba lehenago konturatu?  
Hori da daukadan damu handia, hori.*

Elkarrizketa gehiegi agertzen ez diren arren, esaldi gehienak laburrak eta esanguratsuak dira eta erabilitako lexikoa ere nahiko erraza da. Teknika hauek irakurketa askoz errazagoa eta biziagoa egiten dute.

*Zerbait laga zuen nire hanken gainean. Sorbalda sakatu zidan eskuaz. Eta ospa egin zuen.*



Beste alde batetik, idazleak noizbehinka narrazio linealetik irten eta pertsonaia batzuen ikuspuntuak zatiak jartzen ditu, gertakizunen inguruan. Honek ekintza guztiak hobeto ulertzea ahalbidetzen du, eta istorioari lotuta geratzen laguntzen du.

*Abokatuaren adierazpena: Sofiaren abokatuak izan nintzen...*

Liburu honen alde bereizgarri bat da lehenengo pertsonan idatzita dagoela, narratzailea protagonista izanik. Beste ezaugarri bitxi bat da pertsonaia honen eta beste pertsonaia gehienek izenak (Sofiarena izan ezik) ez direla agertzen, eta honek atmosfera misterioitsu bat ematen dio kontakizunari.

*Sofiaren ahizpa ez zen itsaslabarraren parean jesarrita zegoen pertsona bakarra. Haren ondoan, parkean gaztainak eskaini zizkidan gizona zegoen: Sofiaren eta bien aita.*

---

## Iritzia

Nobela hau nahiko gustatu zaigu. Irakurtzen hastean, askoz aspergarriagoa izango zela uste genuen, baina ustekabe atsegina izan da hasieratik amaierara arte entretenigarria iruditu zaigu.

Honetarako oso lagungarria izan da idatzita dagoen modua. Idazleak esaldi labur eta esanguratsu asko sartzen ditu istorioan zehar. Horiei esker, gauza asko esaten ditu hitz gutxitan. Horrela, liburu osoan ez dago aspertzeko momentu askorik, etengabe ekintza garrantzitsuak eta interesgarriak gertatzen baitira.

Idazlearen teknika hauekin jarraituz, noizean behin kontakizunaren etorkizunean gertatuko direnen aurreratzeak jartzen ditu esaldi labur modura, irakurleak interesa gal ez dezan eta gelditu gabe irakur dezan, amaieran gertatzen denaren berri lehenbailehen izan nahi duelako. Hau asko gustatu zaigu, honi esker liburua jarraian irakurri dugulako eta benetan istorioari lotuta geratu garelako.

Bestalde, liburuan tratatu den gaia hasieratik gustatu zaigu. Genero indarkeria zoritxarrez geure gizartean bizirik dagoen gaia da, eta honi buruz irakurtzea eta entzutea interesgarria iruditzen zaigu, oso gogorra izan arren. Hala eta guztiz ere, liburuari alde txar bat atera behar izanez gero, batzuetan pertsonaia gehienek erreakzioak desagokiak izan direla esango genuke. Indarkeriaren gaiaren inguruan neurriak hartzeko nahiko leunak

izan direla iruditu zaigu, eta Sofiak senarrarekin bizi izandakoa gainerako pertsonaiek uste izan dutena baino askoz zigorgarriagoa dela uste dugu.

Hala ere, irakurketa erakargarria izan da pertsonaia nagusiak oro har nahiko errealak izan direlako. Hau da, kazetaria, bere neskalaguna edota Sofia bera, eguneroko bizitzan aurki ditzakegun pertsonen antzeko izaerak dituzte eta pertsona hauek hartuko lituzketen antzeko jarrerak izan dituzte. Honek irakurgaiarekin enpatizatzen laguntzen du.

Horrekin batera, gertakizunen kokapena Bilbon edo inguruan izateak irakurketan lagundu egiten du, horrela errealagoa ematen duelako eta honek are entretenituagoa bihurtu du liburua.

Amaitzeko, dudarik gabe liburua gomendatuko dugula esan behar dugu, bereziki irakurtzen emozioak sentitu nahi dituzten pertsoneri eta oro har pertsona gazteei, harreman osasuntsuak nolakoak izan behar diren uler dezaten.

---

## Bibliografia

- *Zureak egin du*. Iñaki Frieria. Susa, 2010.

---

## Webgrafia

- [https://eu.wikipedia.org/wiki/I%C3%B1aki\\_Frieria](https://eu.wikipedia.org/wiki/I%C3%B1aki_Frieria)
- <http://kritikak.armiarma.eus/?p=4734>
- <http://www.atalak.eus/ikasgela/il-hiztegitxoak/il-txokoa/zureak-egin-du/zureak-egin-du.pdf>
- <http://esporak.blogspot.com.es/2010/01/inaki-frieria-zureak-egin-du-2009.html>
- <http://www.idazleak.eus/euskara/idazleak/inaki-frieria-urbistondo>
- <http://www.atalak.eus/ikasgela/nola-egin/il-gida/index.html>